

**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

2022-12-03 Vitoria-Gasteiz 03-12-2022

**Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari**

Eusko Legebiltzar buru andrea, lehendakari ohia, sailburua, sailburuorde, etorritako herri agintari eta herri ordezkariok, jaun-andreok, egun on eta eskerrik asko denoi gurekin izateagatik.

Eskerrik asko gonbidatuei zuen hitzengatik; eta zorionak zuen ibilbide, konpromiso eta ereduarengatik.

Gaur Euskararen Nazioarteko Eguna da eta, baita Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna ere, gure elkartasuna adierazten diegu.

Ekitaldi honetan, Euskararen Nazioarteko Egunean ausardia goraiatzten dugu.

Ez, ordea, ameskeriaren bidaide arriskutsua izan ohi den zuhurtziarik gabeko ausarkeria.

Ez aurrera egitea galarazten duen itxurakeria.

Ez bata, ez bestea.

Abiapuntua, zailtasunak, helburuak eta baliabideak ongi identifikatzen eta zehazten dakien ausardia dugu ospakizun. Euskara negutik udaberrira ekartzea ahalbidetu digun ausardia, alegia.

Aurten berrogei urte bete dituen Euskararen Legea landu, onartu eta bideratu zuten haien ausardi demokratikoa ospatzen dugu.

Ospatzearekin batera, gorazarrea ere egin nahi diegu euskararen aldeko lanari etorkizun oparo baten bidea zabaldu zioten haiei. Ikuspegi, sentiberatasun eta joera desberdinetakoak lankide bihurtzeko ausardia izan zuten.

Gogotsu erantzun die euskal gizarteak: euskararen herriak euskarak berrogei urteotan ezagutu duen hazkunde eredugarria eskaintzen die, orogarri gisa, Euskararen Legea bideratu zutenei, haien jokabide ausart bezain adimentsuaren onespenez.

Orogarri horrek, ordea, ez dio euskara biziberritzeko ahaleginari azken punturik jartzen. Lanari eta konpromisoari eusteko deia ere bada.

Beharrezkoa izaten jarraitzen du, berrogei urte geroago, ausardi hura, erronka berriei ere adostasunez aurre egiteko.

Era askotakoak dira oztopoak eta, batez ere, aurkako inertziak.

Baina, Euskaraldiak argi uzten digunez, euskararen erabilerarako dei ausartak badu gizarte elkartzeko gaitasuna. Ausardia eta zuhurtzia orekatzen asmatzen badugu. Eraginkortasuna eta batasuna lotzen asmatzen badugu. Euskararen Legea bideratu zutenen ausardiaz.

Hitzek ekiteko garaia bizi bizi, aho bizi, mantendu behar dugu.

Jarraitu dezagun, egunero, ausardiaz ospatzen Euskararen Eguna.

Eskerrik asko!